

Bergarako astekaria

Berrigara

**Joseba
Lopez**

**Euskadiko
motokros
txapelduna**



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58






Matxiategi elektragintza

Helbide berria, zerbitzu hobea

Matxiategi Elektragintza **Zurradero 8an** izango duzu hemendik aurrera, lokal handiago eta erosoagoan. Zerbitzu hobea jaso dezazun.



Orain, elektragailuak eta bideo eta Hifi ekipoak ere badauzkagu!



*Iluminazioa
Instalazio eta material elektrikoak
Segurtasun eta suteen kontrako sistemak*

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94. Bergara

BEDELKARen
San Martinetako zozketa
ZORIONAK!
15.000 pezetako
15 erosketa-bono



Saridunak:

Ibon Bilbao
Amaia Moreno
Mari Angeles Gil
Harkaitz Elkoro
Aintzane Gardoki

Lorentxo Laskurain
Maite eta Imanol Garitano
Eider Altuna
Aitzol Lenisoro
Juan Luis Etxaniz

Veronica Benitez
J. Ramon Elkoroberezibar
Maria Asun Plazaola
Mikel Castelo
Jorge Gonzalez



Erlojuaren kontra

Jon Altuna "Oxan" / Kazetaria

Gure bizimodua den bezalako bada, historian zehar egin diren zenbait asmakuntzen ondorio da. Suaren aurkikuntzak aldaketa handiak ekarri zituen, gorpila eta ondoren asmatu diren ibilgailuak aurrerapen handia izan dira, idazkera, inprenta, polbora, irrati, telefono, argazki-zinema, telebista..., baina guztien artean denbora neurtzeko moduen asmakuntza izan dira niretzat bizitzan eragin handiena izan dutenak, erlojua eta egutegia alegia. Ostegunerako hau, hamaitketarako bestea, 18 urterako zera,...

Aurretik jarritako egun eta ordua gero eta gertuago da momentuoro, gustoko izan edo ez izan. Bi milagarren urterako falta denaren kontaketa ere hasi da. Bi mila borobila da baina guretzat bakarrik, txino edo musulmanek beste egutegi bat dutenez eurek ez dute izan milurteko azken eklipserik, ez azken solstiziorik, ez azken orgasmorik...

Batzuk 2000. urtera iristen ari garenean, bada erlojuaren katetik libratzen

denik, baina gero eta gutxiago dira, indijenak. Naturaren erlojuaren arabera bizi dira, zenbat urte dituzten esateko gauza ez dira, noiz jaio diren ez dakite, datarik gabeko gizartean jaio baitira. Gosea dutenean jan, ahal bada; eguzkia jotzen duenean lo, nahi bada.

Hori da naturala. Gure bizimodua edo biziraupen modu hau, aldiz, ez da batere naturala. Erlojuaren menpe bizi gara. Hala ere, oraindik naturak zerbait agintzen du, eta ez du abisatzen. Ez da ordu konkreturik lurrikara edo hurakarentzat. Baina astindu handienak bai-

no heriotza, arazo eta miseria gehiago eta min handiagoa sortzen du lehen munduaren nagusitasun sinkronizatuak.

Urtean 12 hilabete, egunean 12+12 ordu, dozenaka neurtzen ziren gauzak garai batean. Bana neurketa gora eta behera, denbora erlatiboa da. Ordu laurdena luzea edo motza izan daiteke. Motel doa preso dagoenarentzat, agortzen ari da zaharrentzat. Geldi dagoen erlojuak ere egunean bitan emango du ordua ondo (digitala bada behin). Erlojua geratu daiteke, baina denbora ez. Aurrera etengabe.

Erlojuaren menpe edo erlojuaren kontra bizi gara. Hamar bat urte edo gehiago daramatzat bat jantzi gabe, baina ni ere ez naiz libratzen, "eguen goizerako" lerro hauek idatzita, hamarretarako lanera, larunbat arratsaldean Itoitzko urtegiaren aurkako manifestazioa Iruñan, igandean Kilometroak Oreretan, edo kilolitroak giro kaskarra dator eta, baina gero oporrak, askatasuna.<

"Erlojuaren menpe edo

erlojuaren kontra bizi gara.

Hamar bat urte edo gehiago

daramatzat bat jantzi gabe,

baina ni ere ez naiz libratzen"

■ barruan



Mikel Garaizabal

Enologoa eta somelierra

"Ardo on batek usaimena izan behar du: kontzentrazio aromatiko handia"

8.



Joseba Lopez

Motokros txapelduna

"Motorrean asteburuan ibiltzen naiz bakarrik. Pena da inguruan zirkuiturik ez egotea"

23.



Elena Eguren

La Puerta al ingles akademiakoa

"Irla desertu batera liburu bat, lagun bat eta bueltarako txalupa on bat eruango nittuzke"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1623. Irailaren 30ean Don Pedro Izagirre orduko alkateak zera agindu zuen: domeka eta beste jaiegunetan ez zedila mandazainik irten herritik meza entzuteke, ez zamatuta eta ez zamatuta barik. Aginduan, hala egiten zuenarentzako berrehun marabediko zigorra ezarri zen eta edozein herritarri eman zitzaion agindua betetzeko edo salaketa jartzeko eskubidea.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1237. Irailaren 28koa da Gipuzkoan egiten zen balea arrantzaren berri ematen duen aurreneko agiria.

1788. Irailaren 29an Tomas Zumalakarregi jaio zen Ormaiztegin.

1977. Irailaren 29an Egin egunkaria agertu zen.

MUNDUAN GERTATUA

1936. Irailaren 29an Babes Nazionalako Batzarrak, Francisco Franco izendatu zuen Estatuko Buru eta Ejerzito Espainolen Generalisimo.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzeta 24

4-11-28-34-37-43 (osag.14/itz.4)

Astelehena 27

12-19-20-32-44-48 (osag.37/itz.8)

Martitzena 28

9-30-32-42-45-49 (osag.24/itz.1)

Eguaztena 29

5-6-7-8-13-19 (osag.43/itz.7)

PRIMITIVA

Zapatua 25

1-15-19-21-24-34 (osag.17/itz.9)

Domeka 26 *Saritzarra*

12-23-37-39-43-45 (osag.1/itz.6)

ONCE

Eguakitzeta 24: 47.272 (013 seriea)


Astelehena 27: 91.487

Martitzena 28: 71.986

Eguaztena 29: 50.993

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Zapatuan, urdin agertuko zaitgu zerua goiz partean, baina egunak aurrera egin ahala, estaltzen joango da. Eguraldi atsegina izango da. Domekan, berriz, hodeiak nagusituko dira eta euria egin dezake. Tenperaturak behera egingo du.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: irailak 25



Ilbehera: urriak 2



Ilberri: urriak 9



Ilgora: urriak 17

Eguzkia

Domeka, urriak 3



Sortu: 08:15



Gorde: 19:55

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 23	27	13	-
Eguakitzeta 24	26	13	2,8
Zapatua 25	22	14	7,5
Domeka 26	25	13	-
Astelehena 27	21	11	0,4
Martitzena 28	28	14	-
Eguaztena 29	29	9	6,9

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Atzekuaz aurrera

Itxulikaldera,
alderantziz.

- Jertsia
atzekuaz aurrera
daukazu.

JOSU OKINA



hamaika ikusteko jaio ginen!

Suge-haragia kirolzaleendako

Urtarrilean Asiako XIII. Jokuak jokatu ziren lekutik gertu dauden Bangkok-eko jatetxe batzuetan plater bereziak eskaintzen dihardute orain: sugeen eta beste animalia basati batzuen haragiaz egindakoak, hain zuzen. Reng Reklai, jatetxe hauetako bateko nagusiak dioenez, narrastien ehunek eta odolak lagundu egiten diete atletei probetan emaitza hobek eskuratzen.

Farmaziak

Eguakitzeta 1:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 2:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 3:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 4:

PLU. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67.

Martitzena 5:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 6:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 7:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 3: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak

DYA 943 78 71 51

Gurutze Gorria 943 76 56 76

Larrialdik 943 46 11 11

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 41

Anbulantzia 943 55 49 52

Udalzaingoa 943 77 91 00

Ertzaintza 943 76 53 41

Suhiltzaileak 943 78 28 00

Osasun Etxea 943 76 24 41

Arrasateko ospitala 943 03 53 00

Asepeyo 943 76 16 41

Pakea 943 76 13 41

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 27

GARRAIOAK

Euskotren 943 45 01 31

PESA 902 10 12 00

Taxiak 943 76 19 51

RENFE 943 28 25 91

UDALA

Udaletxea 943 77 91 00

Udal Artxiboa 943 77 91 21

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultur Etxea 943 77 91 51

Liburutegia 943 77 91 61

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 61

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 61

Erregistroa 943 76 13 61

Jardun 943 76 36 61

Jubilatu Etxea 943 76 21 41

Postetxea 943 76 28 61

zorion agurrak

ESKER ONA

Sabiñe Aramendi Astola

Guillermo Alberdi Uriaren alarguna

Bergaran hil zen
1999ko irailaren 23an,
82 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*



Ainhoa Goienetxea
Sean 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



Joseba Elortza
Urriaren 6an
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Pati.



Marina Retolaza
Urriaren 3an
7 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



Eider Aranzabal
Urriaren 7an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mirari Lamariano
Urriaren 4an
34 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta Eider.



Maria Cordero
Urriaren 4an
5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Alain Bravo
Urriaren 2an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alen Irureta
Urriaren 4an
7 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Paula Cordero
Urriaren 4an
2 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak



Peio Irizar
Urriaren 1ean
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Gabilondo
Urriaren 5ean
5 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



Igor Olañeta
Urriaren 1ean
5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Xabier Arrizabalaga
Urriaren 2an
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Aginagalde
Urriaren 1ean
urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Mikel.



Kristina Etxeberria
Urriaren 6an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Ainhoa.



Borja Gonzalez
Urriaren 2an
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Marian Serna
Urriaren 2an
urtebetezeta.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Vicky Sanchez
Urriaren 4an
27 urte.
Urte askotarako!
Martin eta Rossana.



Jose Luis Gandiaga
3an urteak. Urte askotarako!
Eba, Aitzol eta Endika.



Gorka Guisado
Urriaren 1ean
8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eider Larrañaga
Urriaren 6an
8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Unai Agirrezabal
Urriaren 5ean
6 urte. Urte askotarako!
Luis Mari, Mikel eta Ezoi.



Leire Yera
Urriaren 4an
8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Rikardo Errasti
Urriaren 6an
65 urte.
Urte askotarako!
Isabel eta Beatriz.

Datorren asteko alean, URRIAREN 8a eta 14a bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

hildakoak

BERGARA

Isabel Bermejo Casero

Irailak 22, 88 urte

Juan Murgiondo Etxabe

Irailak 25, 88 urte

Juan Migel Usabiaga

Irailak 27, 45 urte

jaioetakoak

BERGARA

Unai Fernandez Iriondo

Irailak 23

Ane Larrañaga Zubizarreta

Irailak 21

Xabier Igartua Agirre

Irailak 23

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.

Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.

Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40,

12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.

Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.

Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak:

07:25, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35,

14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35,

20:30*, 21:05*, 21:35*.

Zapatuak: 09:35,

11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35,

20:30*, 21:05*, 21:35*.

Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35,

21:05*, 21:35*.

(*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15,

09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15,

21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15,

14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15,

19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30,

07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30,

20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30,

16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30,

18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30,

07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20,

10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20,

15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20,

20:05, 20:20, 21:20.

Zapatuak: 07:20, 08:05,

08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05,

16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20,

21:20.

Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50,

11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05,

20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35,

13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45.

Zapatuak: 20:45.

Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00,

13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10.

Zapatuak, domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20,

08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20,

13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20,

19:20, 20:20, 21:35.

Zapatuak: 08:20, 09:35,

10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20,

17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35.

Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20,

17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00,

08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00,

14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45,

19:00, 20:30, 21:00.

Zapatuak: 06:45, 09:00,

10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00,

18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00.

Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00,

16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik).

Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35,

19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35,

19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik).

Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00,

18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik).

Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00,

19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00,

19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak:

07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40,

14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30,

18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30,

18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30,

17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00.

Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00,

19:30, 21:00.

MUSIKA

► **Primal fear, Metalium eta Sinergy** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

► **2 Kate eta Lif** taldeak domekan, 22:30etan Oñatin.

ERAKUSKETAK

► **Josean Santorcuatoren plumilla erakusketa**
Nahikari tabernan.

► **San Joxepe** elkartearen Kultur Hamabostaldiaren inguruan antolatutako kartel lehiaketako lanak eta eskulanak Kultur Etxean ikusgai, urriaren 5etik 12ra.

► **Oihana Insausti eta Iker Valleren margoak**
Antzuolako Surpe tabernan.

LEHIAKETAK

► **XXII. Euskal Zinema eta Bideo Bilera** abenduaren 3an eta 4an Lekeition. Pelikulak 8 eta Super 8 formatoan eginak izan beharko dute. Bideoak VHS formatoan aurkeztu beharko dira. Lanak aurkezteko epea urriaren 24an bukatuko da. Argibideak: 94 684 12 21.

► **Komiki ez sexisten Donostiako hirugarren lehiaketa**, Donostiako Udaleko Emakumearen bulego-ak antolatuta. Lanak azaroaren

ARGAZKI ERAKUSKETA

Eman iritzia...

Non: Udaletxeko pleno aretoan
Noiz: aste barruan 18:00etatik 21:00etara; zapatuan 12:00etaik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Urriaren 10era arte.

Euskal Herriko Unicef Batzordearen "Eman iritzia baina lehenik informa zaituz" sentsibilizazio kanpainaren barruan, argazki erakusketa dago ikusgai Udaletxean. Aurten haurren eskubideen hitzarmena sinatu zeneko 10. urteurrena dela eta, Unicef erakundeak haurren egoeraren berri eman nahi izan du. Erakusketan, Bolivian, Sudanen, Mexikon, Kosovon eta beste hainbat herrialdetan jasotako irudiak jarri dira. Guztira, 60 bat argazki dira bildutakoak. Unicefen helburua herrialde horietako benetako errealitatea ezagutzera ematea da eta antolatzaileen arabera kasu askotan imajina gordinak dira erakusten direnak. Aitziber Azkondo Unicefeko komunikazio departamentuan ari da lanean. Berak esan digunez, "oraindik ere toki askotan haurrak bizi baldintza oso eskasetan bizi

dira. Iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen artean dauden ezberdintasunak nabariak dira eta sentsibilizazio kanpainak beharrezkoak dira, guztiok horren inguruan erreflexionatu dezagun".

Unicefeko kanpainarekin jarraituz, "Kosovo: haurrak gatazka armatuetan eta munduko haurren egoera" izenburuko mahai-ingurua izango da, eguenean, hilak 7, 19:00etan Udaletxean. Hizlariak Consuelo Crespo Euskal Herriko Unicef Batzordeko presidentea, Jose Juan Ortiz (Unicefeko arduraduna Albaniako Kukeseko errefuxiatuen esparruetan) eta Berengarako gobernuaren kanpoko erakundeetako ordezkariak izango dira. Era berean, "Patesnak" laburmetraia eskainiko da Udaletxean urriaren 10era bitartean, erakusketa zabalik dagoen orduetan.



Udaletxean ikusgai egongo den irudietako bat.

26ra jasoko dira Emakumearen bulegoan (Urdaneta 13, 3.a. 20006 Donostia).

► **Euskal esakera barrien lehiaketa**. Esakerak aurkezteko epea azaroaren amaieran bukatuko da. Gabonetan 5.000 pezetako 40 sari banatuko dira.

Argibide gehiago Bermeoko udal euskara zerbitzuan, 94 617 91 32 zenbakian.

IKASTAROAK

► **Moises Aspiazu** dantza taldeak helduei zuzendutako

fundango eta arin-arin ikastaroak emango ditu urriaren 20an aurrera. Izen-ematea 2.000 pezeta hileko. Bestalde, urte zuzendutako klaseak urriaren 4an hasiko dira, 17:00etatik 18:00etara. Argibide gehiagorako deitu 943 76 15 40 telefono zenbakira.

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 49

DEIAK

► **Hitzaldia:** "Euskara eta Euskal Herria Aragoi".

Hizlariak: Gartzten Lacasta (Cinco Villas), Enrique Ipas (Anso) eta Fernando Escuer (Airbe). Eguaztenean, hilak 6, 19:30etan Kultur Etxean, Jardunek antolatuta.

► **Txapa Irratia** kolektiboan parte hartu nahi duten guztien bilera bihar, zapatua, 12:00etan BOTAKo lokalean.

► **Asisko San Frantziskoren** oroimenezko bederatzizurrrena urriaren 2an, 3an eta 4an 19:00etan Trinitate elizan.

► **Hegoamerikako haurrei** zuzendutako eskolako materiala jasoko da Correoseko bulegoan urriaren 5era arte.

► **Zikiro jatea** urriaren 9an, 14:30etan Basalgoko elkartearen. Izen-ematea (2.500 pezeta) Pol-Polen edo Artatsen urriaren 7ra arte.

► **San Joxepe** elkarteak urriaren 7an Nafarroako Lodosa herrira egun osoko irteera antolatu du. Izen-ematea (3.000 pezeta) eta argibideak 943 76 21 40 zenbakian.

OHARRAK

► **Bergarako Helduen Heziketa** Iraunkorreko ikastetxeak (HHI-EPA) matrikula epea irekita dagoela jakin arazten

du. Irakaskuntza ofiziala eta doanekoa da. Argibideak Irizar jauregian, Barrenkale 33an, edo 943 76 44 52 telefonoan.

► **AEK.** Matrikulazio epea urriaren 8ra arte zabalik.

► **Udalak** gogorarazten duenez, trasteak biltzeko kamioia hileko lehen eguaztenean pasatzen dela. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira betiko tokietan.

JAIK

► **Euskal jaia** bihar, zapatua, Oñatin, egun osoz.

KINTADAK

► **1961n jaiotako enafaria** urriaren 2an Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Nahikari eta Dixula tabernetan.

► **1925ean jaiotako enafaria** urriaren 3an Torrekua asadorean. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) jatetxean bertan.

► **1951n jaiotako enafaria** urriaren 9an Antxonin. Izen-ematea (1.500 pezetako depositoa) bertan.

► **1933an jaiotako enafaria** urriaren 17an. Goizean meza izango da eta ondoren bazkaria Antxonin. Izen-ematea (1.000 pezeta) Antxonin edo Intxortan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades Paris Tombuctu

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Illuminata

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema**Locos en Alabama**

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Uzaga**Eyes wide shut**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 16:45, 19:45, 22:30.
Domeka: 16:45, 19:45, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena: 19:30, 22:30.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:30.

EIBAR. Rialto**Locos en Alabama**

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola**Notting Hill**

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Manolito Gafotas

Domeka: 17:00.

La anguila

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztartxo**Celos**

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

AZPEITIA. Zelaitxo**La amenaza fantasma**

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

PARIS TOMBUCTU

Zuzendaria: Luis G. Berlanga.

Aktoreak: Michel Piccoli, Concha Velasco, Amparo Soler Leal. Luis Garcia Berlanga zuzendari ospetsuaren azken filme honetan era guztietako pertsonaiak aurki ditzakegu. Mailotean Paris-Tombuctu idatzita duen txirriindularia ikusi ondoren, Michel des Assantes zirujano plastikoak (Michel Piccoli) bizikletan ihesari ekin dio eta Calabuch herrira helztean istripua izango du. Han era guztietako abenturak gertatuko zaizkio...



ILLUMINATA

Zuzendaria: John Turturro.

Aktoreak: John Turturro, Katherine Borowitz, Susan Sarandon, Leo Bassi.

Iazko Canneseko Zine Jaialdiko sekzio ofizialean aurkeztu zen eta kritikak harrera ona egin zion Turturro aktore eza-gunak (*Haz lo que debes, El gran Lebowski*) zuzendutako lehen filmeari. *Tuccio* idazleak berak idatzitako *Illuminata* lana antzetzeko asmoa dauka baina antzerki aretoko arduradunak ez daude guztiz konbentziturik...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

943 76 19 54 BERGARA
IRU: 943 79 11 71 ARRASATE

Enologo eta somelier gutxi dago Euskal Herrian. Mikel Garaizabal (Elorrio, 26 urte) da horietako bat. Ostalaritza eta Turismoa ikasi zuen Leioan, Enologia eta Mahasgintza Biasterin eta somelier ikasketak egin berri ditu Madrilan (promozioko hirugarrena izan da). Ardoari buruzko ikastaro laburra ematen dihardu egun hauetan Kartzela Zaharrean, Jardunek antolatuta.

G. Enologo ona izateko zer eduki behar da?

E. Enologoa da ardoa egin, zaindu eta aztertzen duena. Somelierra, berriz, jabetxeetan aholkuak ematen dituena, janari bakoitzari zer ardo dagokion jakiteko. Enologo ona izateko ardoa dastatzen ikasi behar da. Esperientziak ematen du hori, usaimena eta dastamena, batez ere, hezitu egin behar dira-eta. Dastatzaile ona izateko, buru ona edukitzea beharrezkoa da, aromak gogoratzeko.

G. Eta ardo on batek zer izan behar du?

E. Usaimena, hau da, kontzentrazio aromatiko handia. Horrez gain, gorpuzta izan behar du eta ahoan orekatua izan behar da: gozotasun, garratzasun, mingostasun eta gazitasun puntu orekatua izan behar du.

G. Zuri zelako ardoak gustatzen zaizkizu?

E. Era guztietakoak, gozoak eta apardunak izan ezik. Ardo bakoitzak bere nortasuna dauka eta horrek erakarri egiten nau. Toki guztietako ardo onak gustatzen zaizkit. Ardo onaren eta txarraren artean ezberdintzeko, ardo mota asko probatu behar dira. Ezin gaitezke Errioxan geratu, mundu guztian baitaude mahastondoak eta ardoak.

MIKEL GARAIZABAL
Enologoa eta somelierra

“Ardo on batek kontzentrazio aromatiko handia izan behar du”



Enologo eta somelier onekin ikasitakoa erakusten du Mikelek.

G. Zuriak, gorriak ala beltzak?

E. Guztiak. Une bakoitzean egokiena dena aukeratzen dut: segun norekin, non, nola eta ze momentutan nagoen, era batekoak ala besteak hartzen ditut.

G. Eta urtekoak ala barrikan hazitakoak?

E. Urtekoak gehiago gustatzen zaizkit.

“Zergatik igo den hainbeste ardoaren prezioa? Eskaera handia dagoelako, hau da, ardo modan jarri eta jakinmina piztu duelako”

G. Arabar Errioxako ardoak munduko onenak dira, askok dioten bezala?

E. Egia da bertako ardoak, hau da, Irulegikoak, txakolinak, maila onekoak direla, baina ezin dugu esan munduko onenak direla beste guztiak probatu ez ditugu. Gure paladarra ardo mota batera ohituta dago baina munduan ardo onak daude.

G. Maila handiko ardoak ditugu Euskal Herrian?

E. Bai, Arabar Errioxakoak, esaterako, Bordelekoak en mailan daude eta, gainera, merkeagoak dira. Kalitate eta prezioa kontuan hartuta, munduko onenetarikoak izango dira.

G. Eta besteekin alderatuz, zer ezaugarri dituzte Arabar Errioxakoak?

E. Klima, orientazio, barrietasun eta lur (bustin kalkareoa) onak ditu eta horrek ardo gorpuzduna izateko ezaugarri guztiak ematen dizkio. Bestalde, bertako mahastondoekin egiten da.

G. Lehengo eta gaur egungo Arabar Errioxako ardoen artean badago ezberdintasunik?

E. Bai. Lehengo ardoak barrika larregi zuten eta kalore motelekoak ziren. Orain, aroma primarioak (frutak, lorak e.a.) garrantzitsuak direla ematen zaie eta ahoan tanino gehiago dago egur gutxiago aurkitzen dugu. Bestalde, teknikak hobetu dira eta, ondorioz, ardo hobek egiten dira orain: altzairua erabiltzen da, tenperaturak hobeto kontrolatzen dira...

G. Zergatik igo da hainbeste ardoaren prezioa?

E. Eskaera handia dago ardoaren inguruan, hau da, ardo modan jarri delako. Ardoak prezio handia ematen du eta jendearen erabileraren bidez jakinmina piztu du.

Urteagan babes ofizialeko etxeak eraikitzeko lurra badu Jaurlaritzak

Udalbatzak orubearen zesia onartu zuen astelehenean

Urteagan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-rugiro sailari orubea zesia onartu zuen Udalbatzak aho batez joan zen astelehenean.

Udalak Jaurlaritzari Urteaga kalean lagatako orubee-tan (Movilla enpresatik Urteaga 8ra arte doan lursailean) babes ofizialeko 36 etxebizitza eraikiko dira (18 etxebizitza sozial eta 18 etxebizitza itundu). Etxeak egin ondoren, lokal komertzialetarako 370 metro karratuko etxabehea emango dio Eusko Jaurlaritzak Bergarako Udalari. Bestalde, Urteaga 8tik, dagoeneko botata dagoen La Parrarainoko etxek botatzen dituztenean, beste 32 egingo dira.

Beraz, etxeak eraikitze-ko bi fase aurreikusiko dira: lehenengoan 36 egingo dira eta lanak datorren urtean hasiko dituzte. Lehen fasea bukatzen dutenean, La Pa-



Orube honetan eraikiko dira etxeak. Behean, Udalaren eta Jaurlaritzaren arteko hitzarmenaren eguneko argazkia.

rako etxearen ondoan zutik geratzen diren etxeak botako dituzte, berriak egiteko. Aurretik, baina, etxe horietako jabeek etxe berriak emango zaizkie. Bestalde, Udalarentzat izango den etxabehean San Antoniko ermita jarriko dute.

80 metro karratuko etxea, trastero eta garaje eta guzti, 7,5 eta 12,5 milioi pezetaren artean kostatuko da. Prezioak finkatzerako orduan bi irizpide hartu dira kontuan, onuradunen soldaten arabera. Hortaz, etxebizitza sozialak eta etxebizitza itunduak bereiztu dira.

Etxebizitza sozialen kategorian sartzen diren etxeak (7,5 milioi pezetakoak) diru sarrera txikiagoak dituztenek eskuratu ahal izango dituzte. Etxebizitza itunduak (12,5 milioi pezetakoak), berriz, sarrera handiagokoak. Edozein modutan ere etxe guztiak, kategoria batekoak zein bestekoak, kalitate berdinekoak izango dira. Bestalde, etxe guztietan izango da igogailua.

Eusko Jaurlaritzak 700 milioi pezeta inbertituko ditu Urteagan etxeak eraikitzen eta urbanizazio lane-tan. Inbertsioen zati bat etxeak saldu ondoren berreskuratuko du.

Gaiz aldatuz, esan dezagun, Udaleko batzorde informatzaileak astero biltzeko uztailaren 29an hartutako erabakia bertan behera laga zuela Udalbatzak aho batez, zenbait batzorde astero biltzea gehiegizkoa iruditzen zaielako batzordeetako buruei. Udalbatzak erabaki zuen batzordeak zenbatero bilduko diren alkateak erabakiko duela, baina gutxienez hilean behin bilduko direla eta batzordeburuak zehaztuko duela bileren eguna eta ordua.



Errepide berriak Bergara inguruan datorren urtean

San Antonioko saihesbidea eraikiko da



Antzuolatik Olaraino joango den Ekialdeko saihesbidea egin, eta Amillagako gasolindegitik San Juanerainoko bide zatia, San Prudentziotik Epelera artekoa eta Osintxuko sarrerako bidegurutzea konpontzeko lanak datorren urtean egingo dira Antton Jaime Garraio eta Errepide diputatuak joan zen

egukitzean Bergarako Udaletxean arduratu zuen bezala. Diputatuak datorren urteotan inguruko errepideetan egingo diren hobekuntzei buruzko azalpena eman zituen.

Diputatuak Victoriano Gallastegi katea izan zuen alboan prentsaurrekuntza eman eta bertan, EAJ, EH eta EAKO zinegotziak ere bildu ziren. Beasain-Durango korredorearen eraikuntzak izanagaituen atzerapena dela eta, kezu azaldu ziren: Bergara-Zumarraga zatiaren azterretik Donostiako bigarren saihesbideari lehentasuna eman izanagatik haserretu zen Jesus Mari Garitano EHko zinegotzia eta esan zuen Deba Garaia beste behin baztertuta geratu dela.



Ekialdeko saihesbidea

Aurrekontua: 2.400 milioi pezeta.

Hasiera: Datorren urtea. **Obra epea:** 17 hilabete.

Beasain-Durango korredorearen barruan, Bergarako Ekialdeko saihesbideari lehentasuna eman zaio, San Antonion sortzen diren trafiko arazoak irtenbidea eman nahian. Galartatik (Oruesagasti baserriaren ondoan), Eibar-Gasteiz (A-1) autopistako Zaldumendiko lotunera arte joango da saihesbidea eta 2,4 kilometro izango di-

tu. Errepidea Martoko eta Zubiaurre atzealdetik joango da eta San Migel azpian egingo den tunela (300 metro) zeharkatuko du. 7 metroko kalezada, 2,50 metroko bazterbideak eta 0,75 metroko bermak izango ditu. Bestalde, Teileriko lotunean (Labegaraietako Industrialdearen hegoaldean) eta Galartzan, bideadarrak egingo dira.



San Prudentzio-Epele

Aurrekontua: 438 milioi pezeta.

Hasiera: Datorren urteko udaberria. **Obra epea:** 6 hilabete.

San Prudentzioko bidegurutzetik (Elorregi) Epeleko bidegurutzerainoko GI-627 errepide zatia (1.400 metro) zabaldu eta hobetzeko, egungo trazatua egokitu eta zuzendu egingo da. Bihurgune batzuk zuzentzeko Deba ibaia hiru lekutan bideratu egingo da. Ibaiaren ubideak, zuzendu eta gero, 15 metroko zabalera izango du eta ibaiaren

ertzetan harrilubetak jarriko dira. Hiru zubi botako dira eta Etxezarreta finkara sartzeko zubi berria eraikiko da. Horretaz gain, bidegorria egingo da lehengo trenbidea aprobetxatuz. Bestalde, San Prudentzioko bidegurutzean biribila egingo da. Oraingo zubia dagoenetan bideratuko da, baina Tavesako bidegorria zuzendu egingo da.



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Barruti-San Juan


Aurrekontua: 235 milioi pezeta.

Hasiera: Datorren urtea. **Obra epea:** 10 hilabete.

Amillagatik San Juanera arteko zatian bihurgune ugari daude eta tarte batzuetan errepedea oso aldapatsua da. Hain zuzen ere, Barrutiko zubitik San Juaneko zuzenera arteko zatia (1.067 metro) zuzendu eta zabaldu egingo da. Errepide berriak 3,50 metroko zabalerako bi errei izango ditu, metro bateko bi bazterbide eta metro ba-

teko berma. Errepide berria egiten denean, Elortza-Boluko bihurgunea eta malda leundu egingo dira eta, beraz, bidea ez da hain aldapatsua izango.

San Juango industrialdea dela eta, inguru horretan autoez gain kamioi asko ibiltzen dira eta aurrerantzean abiadura gehienez 60 kilometro orduko izango da.



Osintxuko bidegurutzea

Aurrekontua: 71 milioi pezeta.

Hasiera: Aurtengo abendua. **Obra epea:** 5 hilabete.

Bergararik Soraluzera goazela, Osintxura sartzeko bidegurutzea zabaldu eta bihurgunea zuzendu egingo dira. Honenbestez Deba ibaiaren gainean doan zubiaren eskumako alde zabaldu egingo da. Bergararik goazela Osintxura sartzeko, 25 metroko luzerako itxoiteko karrila egingo da eta berdin Soraluzetik gatzozela Osintxura

sartzeko. Osintxutik GI-627 errepidera irteteko Soraluzerako norabidean, 25 metroko beste karril bat egokituko da.

Bestalde, Eskoriatzako irteeran, Gatzaga eta Arlabanera joateko bidegurutzean, biribila egingo da; 170 milioi PTA bideratuko dira. Era berean, Arrasateko eta Arlabaneko saihesbideetan firmeak berriztuko dira.

Agirrebeña

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

**Maiatzera arte,
astelehenetik eguenera bitartean,
ez dugu afaririk emango, jaiegunetan izan ezik.**

Barkatu eragozpenak.

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Berrigara

381 zenbakia.
1999ko urriaren 1a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria:

Eneko Azkarate.

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Edu Mendibil.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetz: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketa:

Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Maripí Laskurain.

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkorobereibar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugaldé, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:

Juan Martín Elxepuru, Josu Okina,
Luis Mari Aguirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.

Faxe: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

GOIZETAKO ZINEA ALDARRIKATUZ

Lerro hauen bitartez Novedades zine aretoko arduradunei zuzentzea nahi nuke. Kontua da joan zen urtean kendu egin zutela goizetako programazioa eta aurrean ere badirudi ez dutela domeka goizetan gaztetxoei zuzenduriko filmeak emateko asmorik. Ez dakit zein izango den goizetako saioa kentzeko arrazoia baina ez dut uste gaztetxoen zaletasun falta denik, zapatu edota domeka arratsaldeko saioetan gaztetxo ugari joaten baita zainera.

Uste dut ondo legokeela, prezio merkeagoan, domeka goizetan filmeak ikustera joateko aukera eskaintzea, astebukaerako saioak garestiegiak baitira gaztetxoentzat. Inguruko herrietan, oker ez banago, antolatzen dituzte horrelako emanaldiak eta erantzun ona jasotzen dutela komentatu didate. Bergaran ere garai ba-

tean erantzun ezinhobeaz zeukan goizetako pelikularen emanaldiak (gogoan dut Irala zinea betetzen zenean) eta gaur egun ere uste dut gaztetxo asko joango liratekeela zinera filme interesgarriak programatuz gero. Domeka goizetan ez da haurrentzat ezer antolatzen eta uste dut ideia ona izango litzatekeela goizetako programazioa berreskuratzea. Ea Novedadeseko arduradunak animatzen diren.

Eva Conget

ESKERRIK ASKO ODOL EMALEOI

Bergarako Odol Emaleen elkarteak eskerrak eman nahi dizkie irailan zehar odol ateraldiak egin dituztenei, datuak oso onak izan direlako. Irailan bi saio antolatuta ditugu, hilaren 8an eta 22an. Lehenengoan, 90 ateraldi egin ziren eta bigarrenean, joan zen eguazte-

nean, 79, hau da, guztira, irailan zehar 169 odol ateraldi egin ditugu eta 11 odol emale berri egin dira, zori onak eta mila esker hauetaz bereziki.

Esan behar dugu Odol Emaleen elkarteak pozik gaudela emaitzokinean eta eskerrak eman nahi dizkiegu, era berean, udaltzainei, dendariei, okindegiei eta komunikabideei ematen duten laguntzagatik. Bestalde, azpimarratu nahi dugu odol emaleak euren kabuz, telefono deiar itxoin barik, azaldu direla ateraldiak egitera tokatzen zitzaizen egunetan. Eskerrik asko.

Azkenik, esan nahi dizuegu urriaren 13an beste saio bat egingo dela, betiko moduan, 18:30etan Seminarioan. Ateraldiak egitera, baraurik joan beharrean, zozoz janda agertzea gomen datzen zaituztegu.

*Bergarako Odol
Emaleen Elkarte*

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Udazkena gustatzen jatzu? Urtaro berrixan etorreria igartzen dozu?



Eugenio Barquero

Urtaro guztiak gustatzen jat, ez daukat preferentziarik. Udaren etorrerak gehiago pozten nau baina udazkenean be aisialdian ondo pasatzeko aukera dago.



Maria Victoria Bidegain

Asko, eguraldi ederra egiten dau, haizea gustatzen jat eta paisaia ere ikusgarrixa dago. Uda ez jat bape gustatzen eta udazkenaren etorrera gogoz hartzen dot.



Sebastian Aranguren

Denbora onakin dena gustatzen jat. Guri komeni jaku pasio motzak sarritan eittea eta bankuak siku egon daittezela kantsautakoan bertan jartzeko.



Loli Ramirez

Ez, gustatzen ez jaten urtaro bakarra da. Hostoak jausten dira, ilea ere bai... tristea pentsatzen jat. Uda eta udaberria, eguzkia nahiago dot.



Marisa Puertas

Nire urtaro faboritua da udazkena. Euskal Herrixan batez be paisaia ikusgarrixa egoten da eta ni ere urrikoa naizenez asko gustatzen jat.



Jabi Ibarra

Ez jat udazkena gustatzen. Uda da gehixen atsegini doten urtaroa eta negua ere ondo dago. Uda edo beroa nahiago, erdikoa tira...




Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

TELEFONO KABINAK DENONTZAT

Miren Arenazaren bisita izan dugu aste honetan BERRIGARAKO erre-dakzioan. Mirenek kexa bat plazaratu nahi izan du sekzio honetan. Berak komentatu digunez, Irala kalean (Plazarako sarreraren ondoan) eta Komenio kalean Telefonikak kabinak jarri zituen orain dela urte batzuk baina gaur egun telefono bana dago aipatutako bi tokietan. Lehen gutxituendako zegoen telefonoa ere kendu dute eta kolektibo horren beharrak kontuan hartzeko eskaera egin nahi dio Mirenek Telefonica konpainiari. Umeek ere, dei egiteko, askotan bertara jotzen dutela baina telefonoa goregi geratzen zaiela esan digu.

Eskulan ikastaroa

Noiz:
urriaren 18tik
maiatzera arte
Non:
Kartzela Zaharrean
Ordutegia:
15:30etatik 17:00etara
Prezioa:
3.500 PTA Jarduneko
bazkideek;
4.000 gainontzekoek
Matrikula epea:
urriaren 15a.
Informazioa:
Jardun elkartearen (Kartzela zaharra)
943 76 08 19 / 943 76 36 61



Hitzaldia

Euskara eta Euskal Herria **Aragoin**

Hizlariak:


Gartzten Lacasta (Cinco Villas)
Enrique Ipas (Anso)
Fernando Escuer (Aierbe)

Aragoik dituen euskal sustraien berri emango dute hizlariak
Lexikoa, toponimia, historia

Eguna: Urriaren 6a
Ordua: 19:30etan
Lekua: Kultur Etxea

OHARRA: HITZALDIA GEHIENBÁT
GAZTELERAZ IZANGO DA.

Antolatzailea:



■ adituen esanetan

Hurrengo eguneko pilula

Hurrengo eguneko pilula antikonzeptibo postkoitala litzateke, koitua izan ondorengo larrialdi momentuetan (kondoia huts egin duenean, mediorik jarri ez den kasuetan edota bortxaketa kasuetan adibidez) erabili deza-keguna. Hemen erabiltzen dena bigarren belaunaldiko antikonzeptibo hormonola da, estrogeno eta progesterona hormonon kopuru zehatza duena. 48 orduko pilula izenarekin ezagutzen bada ere, eraginkortasuna handitzeko koitua izan ondorengo lehen 12 orduetan hartzen hastea komeni da. Hiru egunetan, 12 orduero, bi pilula izaten dira, pautaren arabera kopuru hori aldakorra delarik.



MAITENA ZUBIA

Sexologoa

"Pilula hau gehiegi erabiliz gero, emakumearen zikloan trastornoak eragiten dituela jakin behar da"

ez dago indikatuta pertsona batzuentzat eta kasu horretan beste metodo postkoital bat erabili beharko litzateke). Dauzkagun erreferentzien arabera, larrialdietarako barik bestelako egoeretan ere sarri hartzen da; gehiegizko erabilerak emakumearen zikloan trastornoak eragiten dituela badakigu. Ez da rutinazko zerbait pilula hau hartzea, ez da kalterik gabea. Antikonzeptiboaren informazioaren inguruan hutsune handia dago oraindik. Jendeari informatu egin behar zaio, ez dagoela pilula bakar bat, zikloa kontrolatuz gero ezer ez hartzeko aukera dagoela, kondoia eta espermizida erabiltzea guztiz gomendagarria dela... Arrasateko Gazte Bulegoko Sexualitate Zerbitzuan informazio hamabostaldia izango dugu urriaren 8ra bitartean eta interesatuek 943 79 80 10 zenbakira deitu dezakete.<



Eraginkortasuna handitzeko, pilula, koitua izan ondoko 12 orduen barruan hartzen hastea komeni da.

Pilula hartzean, umetokiko barneko geruza aldatzen da. Beraz, datorren obuloa ernaldurik etorriko balitz, umetokiko horma hori aldatu egin denez, itsaspena edo inplantazioa ezinezkoa litzateke. Ernalketa falopioaren tronpetan ematen da eta tronpetatik umetokira jaisten egun batzuk irauten du. Horregatik pilula lehenbailehen hartzea gomendatzen da.

Hormonez hitzegtzen ari garenez, sendagilearen kontrola beharrezkoa da (beharbada

■ bergarako gordailutik

XVI. MENDEKO BIZITZATIK

Imanol Sorondo

Ezin daitezke gauza asko idatzi toki txiki batean eta, gutxiago, bizitza nolakoa zen XVI. mendean. Dena dela, zehaztasun batzuk azaltzera goaz.

Ondarzarar Frantziskok alkate tza hartu du 1576. urtean eta zenbait etxe eta neurri nola dauden begiratzera joan da. Ikusi dituenak hauek dira: harategiak, tabernak, ostatuak, okindegiak, Antzuola, espetxeratuak eta espetxeak; ardoak, sagardoak, olioak, eta gariak neurtzekoak eta pisuak.

Garia oso garesti dago, eta horrek bakailao eta balearen bila Terranobara joan beharra ekartzen du.

Izen asko lehenik datoz: Barenkale, Goenkale, Artekale, Bidekurutzeta... Mendienak: Iradi-goitia, Lizargarate, Buruxolaegi, Astuaga, Algorta, Koroso (Korobaso)... Iturria: Antxiturri...

Uholdeak daudenean, zubiak hondatu egiten dira; zubi asko dago Bergaran eta konpontzen aritu dira edo dihardute: Ozaeta, Zubieta, Zubieta, Arriaga (Antzuola), Aizpitarte (Santamaina), Santa Engrazia eta Urieta. Elorregin ere zubi berri bat egiten ari da; egilea Ibarratar Pero Martinez. Diruketa handia behar dela eta, 62.371 erre-al arte etortzeraino, zerga txiki bat ipini diete dendetan saltzen diren gauza askori; ogi egosiari, ez, aitortu dute.

Errota ugari dago eta Udaletxetik pisu neurriak nola dauden begiratzera joan dira. Errota hauek ikusi dituzte: Errotaegi, Gazeta(?), Santa Ana, Billotegi, Osiranzu, Arizabaleta, Campos, Barrutia, Bolubarria, Urselaza, Ugarte, Bidaume. Errotaberria eta Igeribar.<

Pizza aukerarik zabalena!



Artekalea 1, BERGARA.

Zapatu eta domeketan eguerdian ere zabalik

ETXERA ERAMATEKO EGUNEKO MENUA ere badaukagu!

ENTZALADAK



ENTZALADA MISTOA. 575
ARROZ ENTZALADA. 600
OILASKO ENTZALADA. 625
PASTA ENTZALADA. 600
GANBA KOKTELA. 650

PIZZAK



MARGARITA (Oregonoa, piperbeltza, albaraka). 750
TIPULA. 850
FUNGHI (Txanpinoiak). 950
BEGETALA (Kalabazina, tipula, esparragoa). 950
PEPERONI (Pikillo piperra, berakatza). 1100
ROKEFORT. 925
4 GAZTA (Gazta nahasketa). 1050
NAPOLI (Antxoak, olibak). 925
TONNO (Atuna). 950
DI MARE (Ganbak, antxoak, muskuiluak, atuna). 1050
IZOKINA (Izokin ketua, tipula). 1100
PROSCUITO (York urdaiazpikoa). 975
MEXIKARRA (Okela pikatua eta berakatzarekin). 1025
4 STACCIONE (York, alkatxofak, txanpinoiak). 1050
BOLOGNEA (Okela pikatua). 1025
EULALIA (Piper berdeak, hirugiharrea). 1050
BASERRI (Txorizoa, hirugiharrea, arraultza). 1050
ARTEKALE (Okela pikatua, arraultza, pikillo piperrak). 1050
BAKAILAOA. 1100
TROIPIKALA (Pifia, York urdaiazpikoa). 1050

Asteburuetan
etxez-etxe zerbitzua

943 76 72 00

...eta gainera, freskagarriak,
garagardoa, zukuak
eta postreak!

PASTA



SPAGHETTI BOLOGNEA. 875
SPAGHETTI CARBONARA. 875
SPAGHETTI MINA BERAKATZAREKIN
ETA PIKANTEAREKIN. 875
FUSILLI ROSA. 900
TAGLIATELLE. 900
RIGATONI 4 GAZTA. 900
UKONDOA ESPINAKA SALTAREKIN. 900
OKEL eta BARAZKI RAVIOLIAK. 900
NIDOS AL PESTO. 875
LAGAGNA. 950
BARAZKI KANELOIAK. 900
KALABAZIN BETAOK. 900
ARRAIN LASAGNA. 950

Ebaki hemendik eta eraman beti aldean edo itsatsi zure hozkailuan!



Bidekurutzeta 3, 1.

Tf eta faxa: 943 76 40 33

LANGAlrekin
lankidetzan

INEMek homologatutako
ikastegia

IKASTARO
SUBENTZIONATUAK

PRESTAKUNTZA ARLOAK

- Informatika
- Hizkuntzak
- Ikasketarako laguntzak
- Giza baliabideak
- Gestioa eta administrazioa
- Ingurugiroa
- Kalitate sistemak
- Automatismoak eta teknologia

ENPRESENTZAKO PRESTAKUNTZA

- Prestakuntza beharren diagnostikoa
- Formazio plan pertsonalizatuen prestaketa
- Erakunde publikoetako dirulaguntzen tramitazioa

SERBI lan

Euskaraz irakurri?

Ez galdu aukera hau!



Uste duzun baino errazagoa da.

Euskaraz irakurtzen trebatzeko
50 orduko ikastaro berezia
eta Egunkariaren 3 hilabeteko harpidetza

12.000 pezetaren truke



Egunkaria

Galdetu zure herriko euskaltegian

Ardoa dastatzen ikasten



Mikel Garaizabal enologo eta somelier eloriotarraren eskutik, 25 bat lagun ari dira egun hauetan Kartzela Zaharrean **Jardunek** antolatutako ardoari buruzko ikaskataroan. Besteak beste, ardoa zela egiten den, nola dastatzen den edota ze ardo mota dauden ikasten ari dira. Gaiari buruzko alde teorikoa lantzeaz gain, bainbat ardo mota dastatzen dituzte. Dastaketan, ardoaren kolorea eta usaimena lantzen dituzte ardoa abora eroan aurretik. Argazkietan ikus daitekeenez gustora dabilta ikastaroan eta estilorik ez zaie falta, gainera.



Pilotaleku berria eta alkate aldaketa

Domekan Angiozarko **Arbiaska frontoia** inauguratu zen. Bertan izan ziren, besteak beste, **Victoriano Gallastegi** Bergarako alkatea, **Jose Antonio Etxeberria eta Nere Amaia Zabala** zinegotziak eta **Mila Elortza** Angiozarko auzo alkatea. **Jose Luis Aperribai** apaizak pilotaleku berria bedeinkatu zuen eta jarraian lehenbiziko partiduak jokatu ziren; beteranoen arteko partiduan **Ansola eta Salbideak** 22 eta 16 irabazi zieten **Alvaro Gallastegi eta Gorostizari** eta, jarraian, **Berraondo eta Auxkinek** 22 eta 14ko emaitzarekin menderatu zituzten **Galarza V.a eta Sukia**. Bestalde, pilotalekuaren inaugurazioaren aurretik, alkate aldaketa egin zen eliz atarian. **Ainhoa Larrañagak** "Gure arbasoen goraiatzia" izenburuko testua irakurri zuen eta **Gorka Elortza** aurreko auzo alkateak **Mila Elortza** alkate berriari makila eman zion. Joan zen ekainaren 20an egin ziren hauteskundetan izandako emaitzen arabera, Mila Elortza Angiozarko Bailarako auzo alkatea izango da datozen lau urteetan.



JOSE ANGEEL MIKED



JOSE ANGEEL MIKED



Orrialde honetan, Mikeo anaiak eta Igor Agirrezabal San Migel zeruratzeke globoak gertatzen eta santuari azken ikutuak ematen. Alboko orrialdean, Angiozarko gaztetxoak San Migelen irudia askatzeko momentuan. Abiada handiz, berehala altura handia hartu zuen.

Angiozarko jaietako bukaera emateko santuaren zeruratzea egin zen eguaztenean

San Migel zerura


Angiozarko San Migel jaiak bukatu dira dagoeneko eta azken urteotako ohiturari jarraituz, bertako auzokideek San Migelen zeruratzea egin zuten eguazten iluntzean, San Migel egunean. Hainbat globoz lagunduta, santuak bidaia luzeak egin izan ditu orain arte, jaietako ezaugarri nagusienetakoa bihurtuz.

Eguazten iluntzean ikusmin handia zegoen Angiozarren San Migelen zeruratzea jarraitzeko. Soinujoleak kaleko giroa alaitu eta neska-mutikoek Pagomendi elkartearen txokolatea hartzen zuten bitartean, Mikeo anaiak globoak puzteari ekin zioten. Bonbona baten laguntzaz, kolore biziko globoak helioarekin puztu zituzten. Santua, Benita Gorosabelek egindako jantziekin dotore-dotore zegoen jaietarako ekarritako Udalaren kamioian, bidaia hasteko zain. Piskanaka piskanaka jendea Plazan bilduz joan zen eta zortzirak pasata dena prest zegoen. Santuari lau globo lotu zitzaizkion eta auzoko gaztetxoak izan ziren, nagusien aginduak jarraituz, santua askatu zutenak. Beherala sekulako altura hartu zuen San Migelen figurak. Haizeak hego-mendebaldetik jotzen zuenez, iparrerako bidea hartu zuen. Bizpahiru minututan Angiozarko Plazan bildutakoek santuaren ibilbidea jarraitu zuten, bistatik galdu zuten arte. Datozen egunotan santuaren berri jasotzeko zain izango dira Angiozarren.

ANGIOZAR EZAGUTZERA EMAN

Angiozarko elizakoa soldadu jantzita badago ere, zeruratutako santua kapa gorri batekin jantzen dute, eskuartearen ezpata eta bizkarrean hegoak daramatzala. Bularrean itsasita duen testua euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez idatzita dago. Honela dio: "Ni San Migel naiz, Angiozar Bailarako Zaindaria. Gaur, 1999ko irailaren 29an, San Migel eguna, nire herritarrek zerura bidali naute berri honen mezulari. Aurkitzen nauenak 20.000 PTAko saria jasoko du txartel hau atzekaldean agertzen den helbidera bidaliz. Angiozarko Bailarako Batzarra. 20578 Angiozar. Gipuzkoa. Euskal Herria".

Santua zeruratzeke ohitura 1991. urtetik dator. Urte hartan angiozartarrek herria ezagutarazteko zerbaitekin egin nahi zuten. Jose Angel Mikeok esaten digunez, "ordu nahiko arazo genuzkan; kamiñoa zela, telefonoa, etxe berrien falta... Herria husten zihola ikusten genuen eta jaien inguruan jendea ilusionatu eta identifikatuko lukeen zerbaitekin egitea pentsatu genuen. Gu-



**“San Migelen zeruratzea
jaien ezaugarrietako
bat bihurtu da. Zeruratu
ondoko lehen astean
ikusmina egoten da,
San Migel non agertuko”**

JOSE ANGEL MIKEO

re mezuak norabait bidaltzeko modurik onena santua zeruratzea zela ikusi genuen eta hala egin genuen. Urtero, San Migel egunean, zeruratzen dugu eta jaien ezaugarrietako bat bilakatu da azken urteotan”. Jose Angelek berak eskaiolaz egiten du santuaren aurpegia urtero. Kapak ezkututzen duen gorputza, berriz, alanbreekin egiten da.

BIDAIA LUZEAK

1991n zeruratutako santua Nafarroako Falces herriraino iritsi zen; 92koa desagertu egin zen, ez zuten berririk jaso eta 1993ko edizioan, berriz, Irunera heldu zen San Migel. 1994. urtean ibilbide motza egin zuen, Azkuneta auzoraino hain zuen. Hurrengo urtean, 95ean, Bizkaiko Munitibar herriraino joan zen eta 96an bigarren aldiz desagertu zen San Migel. 1997. urtean Ria-

ñoko Alciles herriko batek topatu zuen santua eta joan zen urtean, azkenik, Toulouse inguruko Saint Ceré herriraino iritsi zen, 400 kilometro inguruko ibilbidea eginez, orain arteko bidaiarik luzeena. Santua topatzen duenari, esan bezala, 20.000 pezetako saria emateaz gain, Angiozar bisitatzeko gonbidapena luzatzen zaio. Orain arte figura aurkitu dutenetatik inor ez da etorri, kasu batzutan urrunegi geratzen zaielako eta bestetan, gertutasunagatik, jadanik Angiozar ezagutzen dutelako. Jose Angel Mikeoren arabera, “eduki ditugun kontaktuak orain arte korreoz edo telefonoz izan dira”. Riañora heldu zen urtean, santua zeruratu ondorengo egunean aurkitu zuen bertako batek. Hala ere, hurrengo urteko San Migel jaiak heldu arte, ez zuen santua bueltan bidali. Dirudienez, urtean zehar loteria

erosten zuen bakoitzean, santuaren bizkarrean igurtzen zuen dezimoa eta jokatutakoa behintzat errekerperatzen zuen. Loteria dezimo bat bidali zien angiozartarrei eta 15.000 pezetako saria tokatu zitzairen. Bakarrik santuak daraman txartela bidaltzea eskatu arren, urte hartan santua korreoz bidali zuen Riañoko lagunak. Beraz, konponketa txiki batzuk egin ondoren, bigarren aldiz figura bera zeruratu zuten iaz eta joan zen uztailearen 25ean Toulouse inguruan topatu zuten.

Dudarik ez dago jaietako bukaera emateko ideia orijinala dela. Mikeok esaten duen moduan, “gaztetxoei eta helduei ere gustatzen zaie eta lehenbiziko aste-beteetan nahiko ikusmin egoten da, non agertuko ote; eta, gainera, jaietako sinbolo bat da. Umeek asko disfrutatzen dute, soka eurek askatzen dutelako, eta orain dela zortzi urte lehenbizikoz egin genuenez, batzuk beti ezagutu duten gauza bat da. Aurkitzen dutenendako Angiozarrekiko lotura hori ere hor dago eta, beharbada, sortzen den hartu-eman hori da azpimarragarriena”.<

Nikolas Agirrezabalen omenezko herri kirol jaialdi bikaina

Agiozarko Arbiaska frontoi berria toperaino bete zen

Angiozarko Arbiaska frontoia bete egin zen aurreneko aldiz domeka arratsaldean Nikolas Agirrezabal zenari eskainitako omenaldian. Herri kirol munduan ezagututako lagunek eta bere auzokideek jaialdi bikaina prestatu zuten Nikolasen oroimenez eta ikusleek primeran pasa zuten kirolariek egindako erakustaldia-ekin.

Iñaki Egurenen ahalegi-nak ikusmin dezente sortu zuen eta osintxuarrak ez zuen hutsik egin: 20 aldiz altxatu zuen 100 kiloko zilindrikoa. Urtetan aurrera joan arren, kostei osintxu-arra ere primeran moldatu zen 100 kilokoarekin, Zelai-ekin batera 40 aldiz altxatu baitzuten txanda librean. Era berean, Zelaik lan bikaina egin zuen 150 kiloko kubikoarekin 2 minutuko saioa eginez eta ondoren, Goenatxo, Aritzeta, Elosu-korta eta Zelailuzerekin ba-tera 100 kiloko bola zortzi-na aldiz altxatuz. Aritzetak eta Zelailuzek elkarrekin 40 aldiz jaso zuten 100 kiloko zilindrikoa. Elosukortak ere bi minututan 10 aldiz altxa-tu zuen 125 kiloko kubikoa.

Bestalde, Goenatxok ja-so zuen jaialdiko harririk handiena, 225 kiloko errek-tangularrarekin lau jasoaldi eginez. Inazio Perurena gazteak bere aitaren enbor bereko ezpala dela erakutsi zuen; 15 urterekin lau aldiz altxatu zuen 150 kiloko zi-



Aizkolarieñ arteko lehia nahiko parekatua izan zen hasieran. Bestalde, Iñaki Egurenek bere helburua lortu zuen.

lindrikoa. Iñakik, aldiz, ia esfortzurik gabe 20 aldiz ja-so zuen 100 kilokoa. Badi-rudi astebukera honetan eta Goenkale telesailleko 1.000. kapitulua ospatzeko antola-tutako jaialdiaren barruan, harria 1.000 aldiz altxatzen ahaleginduko dela leitzarra. Angiozarren sasoi betean dagoela agerian utzi zuen.

BERDINTASUNA

Aizkolariei dagokienez, Aierbek, Mindegia eta Ugarteburuk osatutako hi-rukotea Arria II.a, Arrospide eta Laskurain antzuolarrari nagusitu zitzaion 10 kanaer-diko mozteko orduan. Le-henbiziko bost kanaerdiko-etara guztiz parekatuta iritsi ziren Arria II.a eta Mindegia baina bigarrengo partean

etsi egin zuen Arrospideren taldeak. Eta trontzan, Igor Agirrezabalek (Nikolasen semea) eta Fernando Mar-zanak Carlos eta German Fernandoren anaiei irabazi zieten hamarna korte ebagiz-tzen. Laurak Nikolasekin ikasten ibilitakoak dira. Jaialdia borobiltzeko Kimetz Larrañaga-Eneritz Epelde (Euskadiko txapeldunak) eta Irantzu Lizarralde-Asier Ena dantzari bikoteak eta Egileor eta Narbaiza bertso-lariak aritu ziren.

Amaieran Angiozarko auzoak Migel Okinak Niko-lasi egindako erretratu bat eskaini zion bere familiari eta, era berean Oñatiko Ki-rol Elkartek eta kirolariek emandako plaka bana jaso zuten ikusleen txalo zapa-



rrada artean. Bestalde, bil-dutakoen artean zozketatu-tako motorra Iñaki Alustiza Nikolasen lehengusu bati tokatu zitzaion. Saritutako boletoa 8.989 zenbakia izan zen.


Ariznoa gimnasia taldea martxan da

6 urtetik 13 urtera arteko 35 neska

Joan zen astean Ariznoa gimnasia erritmiko taldeak denboraldi berriari ekin zion. Oraingoan, 6 urtetik 13 urtera bitarteko 35 neska arituko dira taldean. Antzuolan hamarna gimnastako bi talde osatu dira eta Bergaran beste bi, bat zazpi lagunekoa eta bestea zortzikoa. Antzuolan 5 gimnastak izan dira lehendabizikoz izena eman dutenak eta Bergaran beste sei nobedade dira joan zen denboraldiarekiko.

Helena Herreros dugu Ariznoako entrenatzailea. Bere hitzetan, "benjamin mailakoak eskola arteko txapelketan arituko dira, herri baina puntuaziorik

jaso gabe eta alebin eta infantil taldeek, berriz, Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute. Joan zen urtean laugarren postua eskuratu genuen eta aurten koparen bat lortzeko itxaropena daukagu, taldeak maila polita duelako. Eskolarretan ere maila gero eta hobea dagoela ikusten da". Oraindik ere taldeko partaide izan nahi duten 6 urtetik gorako neskek izena emateko aukera dute. Bergaran klaseak martitzen eta eguenean izango dira, 18:00etatik 19:30etara Miguel Altuna berriari; Antzuolan, Frontoian, martitzen eta eguakitzetan 16:45etatik 17:45etara eta eguaztenetan, 15:00eta-



Ariznoa gimnasia erritmikoko neskek maila oso ona erakutsi dute.

ARTXBOA

tik 17:00etara. Interesatuak Helenari berari deitu diezaiokete: 943 76 13 35.

FEDERATUAK EIBARREN

Ariznoan ibilitako Ane Miren Fernandez, Jaione Igartua, Leire Lasa eta Aintzane Narbaez Eibarko Ipurua taldean arituko dira. Helenak dioenez, "ez zegoen dirurik eskatzen zen mailako entrenatzaile bat ekartzeko eta


Ipuruako taldearekin harreman ona daukagunez, euren eskaintza onena irudituz itzaitzazu guztioi".

Bestalde, urriaren 23an junior, jubenil eta senior mailako Gipuzkoako taldeak txapelketa jokatuko da Bergarako Kiroldegian. Maila handiko taldeak etortzea espero da eta txapelketa Espainiako txapelketarako baliagarria izango da.

Milioi erdi inguru batu zen aerobitonean

Raul Luque bergarar gaztearen alde zapatuan antolatutako aerobitonak 500 lagun inguru bildu zituen Udal Pilotalekuan. Kantxan 150 aerobiczale inguru izan ziren eta bi orduz aritu ziren monitorean esanetara, guztiak primerako sasoiaren dardela erakutsiz.

Monitore lanetan, Amaia Carrillo, Oihana Iturralde, Idoia Moreno, Gema eta Marisabel Otaño, Nuria Rodriguez eta Amaia Zabaleta aritu ziren eta kantxan zirenek primerako erantzuna eman zieten ariketak egiteko orduan. Amaieran, Donostiatik etorritako Hugo Lazarok saioa bikain zuzendu zuen, aerobiczale eta ikusleen gozamenarako. Piskanaka piskanaka Fron-



Aerobiczaleak jo eta ke aritu ziren maratoian.

toiko eserlekuak betetzen joan ziren eta amaierarako sarrera dezente saldu ziren. Bi ordu luze iraun zuen aerobitonak eta partaideek izerdiz blai amaitu zuten saioa. Bukaeran hainbat sari

zozketatu ziren partaide guztien artean.

EKITALDIEKIN JARRAITU

Hasiera batean antolatzaileek 1.000 lagun biltzeko itxaropena bazuten ere, ezinez-

koa gertatu zen kopuru horretara iristea. Udalarekin batera, Bolu eta Giartzu gimnasioak izan ziren antolatzaile lanetan. Marisabel Hurtado Giartzu gimnasioaren arduradunaren hitzetan, "helburu nagusia Raul Luqueren alde dirua batzea zenez, erantzun hobea espero genuen jendearen partetik. Hala ere, pozik gaude milioi erdi pezeta inguru batu delako eta diru hori primeran etorriko zaiolako Raulen familiari. Oraindik ere beste ekitaldi batzuk antolatzeko asmoa dugu eta urriaren 17an moda desfilea egingo da Jam aretoan. Herriko denda gehienek partaidetza baieztatu digute eta moda desfile ikusgarria gertatuko dugu ordurako".



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN KANPOAN

16:00: Torrekua-Ortzi
17:00: Amilotx-Agirrebeña
18:00: Urruxurtu-Amozkibar
19:00: Soropotroak-Vacalouras

Amilotx
Urruxurtu
Soropotroak
Amozkibar

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Errotagain-Txipiron
10:30: A Ze Flaxa Etxagi-Agiñazpi
11:30: Etengabe-Ari Ari
12:30: Xurruapak-Aterpe
16:00: Pinturas Bergara-Eri
17:00: Ufala-Bar Canalejas
18:00: Mo(ko)lotov-Moskis
19:00: Pagomendi-Irubide jatetxea
20:00: La Juve-Azpeitxi jatetxea

A Ze Flaxa
Etengabe
Xurruapak
Ari Ari
Ufala
Mo(ko)lotov
Pagomendi
La Juve
Irubide

DOMEKAN KANPOAN

16:00: Tom Cat-Bildurbarek
17:00: Mongatxurak-Patatus
18:00: Bayer-Patxaran Team

Mongatx.
Bayer
Patatus

EMAITZAK

A MULTZOA

Ari Ari-La Juve	1-0
Eri-Pagomendi	1-7
Azpeitxi Jatetxea-Pinturas Bergara	8-4
Irubide Jatetxea-Mo(ko)lotov	3-5
Moskis-Etengabe	1-4

B MULTZOA

Bildurbarek Opel Lam-Mongatxurak	2-7
Patxaran Team-Urruxurtu	1-5
Agirrebeña Jatetxea-Bayer	0-9
Amozkibar-Tom Cat Argandolas	6-2
Patatus-Amilotx	0-4

C MULTZOA

Ion Autoak-Vacalouras	7-2
Ortzi-Buya	10-2
Soropotroak-Shaktale	4-6
Agiñazpi-Torrekua	5-3
Uve Bikoitza-A Ze Flaxa Etxagi	2-3

D MULTZOA

Bar Canalejas-Errotagain	3-4
Txipiron-Xurruapak	2-11
Komando Piperrak-FAC	1-6
Guadalest-Ufala	5-0
Aterpe-Artusamak	0-7

GORA ETA BEHERA



Goleadak

Txapelketako lehen jardunaldian, Pagomendi, Bayer, Xurruapak, Ortzi eta Buya taldeek goleada deigarriak lortu zituzten. Bestalde, Errotagain ia zko liga txapelkunak 4 eta 3 irabazi zion Canalejas kopako txapelkunari.



Punteria eskasa

Zaila da futbito partidu batean golik ez egitea baina hori bera gertatu zitzaien astebukaeran Ufala, Aterpe, Patatus, Agirrebeña jatetxea eta La Juve taldeei. Punteria hobetu beharko dute hurrengo partiduetarako.

ARGI! Pinturas Bergara

Antoaleta Batzordeak 3 puntu kendu dizkie La Juve eta Bildurbarek Opel Lam taldeei oraindik kuota ez ordaintzea-gatik. Urriaren Seko 18:00etarako ordaindu beharko dute. Bestalde, jokalarien NANren fotokopiak entregatu ez dituztenek urriaren amaierara arte izango dute epea zabalik.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	3	1
2. Azpeitxi Jatetxea	3	1
3. Etengabe	3	1
4. Mo(ko)lotov	3	1
5. Ari Ari	3	1
6. La Juve	0	1
7. Irubide Jatetxea	0	1
8. Moskis	0	1
9. Pinturas Bergara	0	1
10. Eri	0	1

C multzoa

	P	J
1. Ortzi	3	1
2. Ion Autoak	3	1
3. Agiñazpi	3	1
4. Shaktale	3	1
5. A Ze Flaxa Etxagi	3	1
6. Uve Bikoitza	0	1
7. Soropotroak	0	1
8. Torrekua	0	1
9. Vacalouras	0	1
10. Buya	0	1

B multzoa

	P	J
1. Bayer	3	1
2. Mongatxurak	3	1
3. Amilotx	3	1
4. Urruxurtu	3	1
5. Amozkibar	3	1
6. Tom Cat Argandolas	0	1
7. Patxaran Team	0	1
8. Patatus	0	1
9. Bildurbarek Opel Lam	0	1
10. Agirrebeña Jatetxea	0	1

D multzoa

	P	J
1. Xurruapak	3	1
2. Artusamak	3	1
3. Guadalest	3	1
4. FAC	3	1
5. Errotagain	3	1
6. Bar Canalejas	0	1
7. Komando Piperrak	0	1
8. Ufala	0	1
9. Aterpe	0	1
10. Txipiron	0	1

■ mahoneroak



JESUS MARI BIAIN
BKEko entrenatzailea

Orain arte aurrean izan ditugun taldeetatik Tolosa izan da ekiporik onena. Hala ere, hutsnako berdinketa emaitza justoa izan zela uste dut. Gure taldea ondo arituz eta partiduko aukerarik onena Josetxok izan zuen bigarren zatian. Amaieran, kontraerasoan beste aukerarik izan genuen baina Anduezarri sekulako falta egin zioten, gure eraso moztuz.

Pozik nago daramagun martxarekin. Sei puntu eskuratu ditugu eta beharbadu besteren bat merezi izan dugu. Dena den, jokalariek ilusioz beterik daude eta eta astebukaera honetan lehenbiziko garaipena lortzen dugun gure zaletuen aurretik. Etxeko partiduak benetan zailak dira gehiago arriskatu behar duzulako. Etxeko lehen garaipenak lasaitasuna emango liguke datozen partiduei begira.

BERRIGARA saria. Datorren astetik, Bergarak Agorrosimena jokatzeko dituen partiduetan, taldeko hiru jokalaririk onenak bereiztuko ditugu. Denboraldi amaieran, Berrigara saria emango zaio gehien nabarmendu den jokalariori.



☎ 943 76 20 61



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoo
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

kronikak


FUTBOLA
Zazpi taldeak
martxan
dagoeneko

Futbol saileko zazpi taldeak denboraldi berrian murgildurik daude. Iaz bezala, zazpi talde izango ditu sailak. Talde nagusiak bost partidu jokatu ditu dagoeneko hirugarren mailan eta sailkapenaren erdialdean dago, 6 punturekin. Gainontzeko taldeak hauek dira: jubenil mailan, lehen eta bigarren mailako taldeak (Gorka Zelaiak eta Jesus Aranburuk zuzenduko dituzte); kadetetan, ohorezko ligan arituko dena (Fernando Oregi da entrenatzailea) eta lehen mailakoa (Agustin Arbulu eta Vicente Uribesalgoren agindutara); Pablo Gallastegik gidatuko du infantil taldea eta Bittor Agirrebarrena da nesken entrenatzailea.


ESKUBALOIA
Nagusiak
garaile lehen
partiduan

Xabier Lijok entrenatzen duen senior taldeak garaipen batekin ekin zion denboraldi berriari. Bergarrek 25 eta 17ko emaitzarekin menderatu zuten aurreko astean Urola taldea. Sailkapeneko goialdean egotea da hasierako helburua.

Gainontzeko taldeek urriaren erdialdean hasiko dute denboraldia. Joxetxo Muniategik zuzenduko ditu jubenil mutilak, Edu Orgaz izango da jubenil nesken entrenatzailea eta Oihana Garmendia kadete mailako nesken taldekoa. Azken hauek euren mailako lehen-dabiziko urtean direnez, teoriarik behintzat zailtasunak izango dituzte ligan zehar esperientzia faltagatik.


SASKIBALOIA
Seniorrak
astebukaeran
hasiko dira

Gizonezkoen senior taldeak zapatuan jokatu du ligako lehen partidua. Alex Familiarrek eta Fernando Moretonek zuzentzen duten taldean Mikel Garitano, Fernando Moreton bera, Ritxar Aranzabal, Martin Etxabarri eta Jordi Prat baja izan dira. Altei dagokienez, Gorka Eraña eta Unai Iñarra jubenil taldetik igo dira eta David Urbina taldera itzuli da. Autonomikoko lehen mailan jokatu du taldeak.

Bestalde, nobedade nagusia nesken senior taldea izango da. Iker Barbero izango da entrenatzailea. Mutilen junior (David Bouzas eta Angel Ortizen esanetara) eta kadete taldeak (David Urbina) indartsuak ditugu hasiera batean.

KARTELDEGIA

FUTBOLA
Bergara-Urki

Lehen mailako kadeteak
Zapatua. 10:00. Ipintza

Bergara-Vasconia

Ohorezko kadeteak
Domeka. 11:30. Ipintza

Bergara-Lagun Onak

Hirugarren maila
Domeka. 17:00. Agorrosin

Bergara-Almen

Neskak
Domeka. 18:45. Ipintza

SASKIBALOIA
Bergara-Durango

Senior mutilak
Zapatua. 19:00. Labegarieta

PILOTA
KLUBEN ARTEKOA:
Bergara-Bearzana

Bigarren mailako jubenilak

Bergara-Azkoitia

Lehen mailako jubenilak

Bergara-Eibar

Lehen mailako nagusiak
Gaur, urriak 1, guakitza. 19:30.
Pilotalekua

JOSEBA LOPEZ/ Euskadiko motokros txapelduna

"Saltoak baino kurbak nahiago ditut"

Domekan Arrasateko Moja-tegi zirkuituan jokaturako proban nagusitu ondoren, 250 cc.ko kategorian Euskadiko motokros txapelduna dugu Joseba (24 urte). Txikitatik aritu izan da motorrean eta orain Arrasateko Motozale Elkartearen ari da.

G. Txapelketa gogorra izan da?
E. Piskat bai. Lau bat urte neramatzen bigarren geratzen eta azkenean lortu dut txapeldun izatea. Bost proba izan dira txapelketarako baliagarriak eta aurten, nobedade gisa, sailkapenerako 125 cc. eta 250 cc.ko kategoriak bereiztu dira. Lehen, berriz, junior eta seniorren arteko bereizketa egiten zen.

G. Motorrak zenbateko garrantzia dauka?

E. Motorra ondo ibili eta bukatzearekin nahikoa izaten da askotan. 250ekoak nekagarriagoak dira: potentziari ezin badiozu eutsi, alperrik zabiltza eta batzuetan gehitxo izaten dira. Arrasateko proban adibidez 400 cc.ko bi motor izan ziren baina ez zuten proba bukatu. 125 cc.koak, aldiz, erabiltzeko errezagoak dira.

G. Zelako zirkuituak atsegin?

E. Salto handiak eta ez zaizkit gus-tatzen, jausi asko izaten

direlako batzuetan. Kurbekin eta gehiago disfrutatzen dut. Abiadura baino, kurbetatik azkar irtetzeko potentzia garrantzitsuagoa da askotan.

G. Non entrenatzen duzu?

E. Pena da inguruan zirkuiturik ez egotea. Motorrean astebukaeran ibiltzen naiz bakarrik, batzuetan Miranda, Altsasu edo Iruñeko zirkuituetan.

G. Orain, zer?

E. Azaroaren amaieran, Meridan, autonomien arteko motokrosean hartuko dut parte. Bukatzearekin konforme.



Eskola pilota

Eskola pilotan arituko diren 10-14 urte bitartekoek, astelehenetik aurrera, astelehen eta eguenetan izango dituzte entrenamenduak, 19:00etatik 21:00etara; 10 urtetik beherakoek eguakitzetan, 17:00etatik 19:00etara.

Igeriketa egokitua

Buru, gorputz edo sentsumenezko desgaitasuna duten haurrei zein helduei zuzenduriko ur ekintza programak izango dira datorren astetik aurrera. Arribideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Ibargarai. Estreinatze-ko. 610 80 37 19.

Pisua salgai Huelvan, garajeduna. 943 76 40 25.

Zabalotegi dorrea. 943 76 40 24.

EROSI

Pisu txiki bat erositako nuke Bergaran. 656 72 02 42.

ERRENTAN EMATEKO

Torremolinos. Hondartzako ondoan. 943 76 39 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan Bergaran.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Telefonoa: 689 991 070.

ETXE KONPARTITUAK

Bilbon pisua konpartituzeko laguna behar da. 943 76 03 21.

Logela bat errentan Bolun. 943 76 55 26.

Neska irakasle frantses batek gazte jendearekin pisua konpartituko luke Bergaran. 943 76 46 54.

Bilbo. Lagun bat edo bi behar dira pisua osatzeko. 943 76 28 17.

Bergaran lagun bat behar da pisua osatzeko. 656 72 02 42.

2. GARAJEAK

SALDU

Ibargarai. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Garajea saldu edo alokatzeko da. 943 76 40 03.

Espoloia. 943 76 42 86.

Espoloia. Garajea salgai edo alokairuan.

Deitu 943 76 42 86 telefonora.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Koldo Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

ERRENTAN EMATEKO

Antzuolan, Ibarrondon. 943 76 61 15.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 33 76.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

ERRENTAN EMATEKO

Ibargarain, bulego lanetarako prestatuta. Deitu 607 34 46 58 telefonora.

Matxiategi. 943 76 22 09.

Zubietan 136 m². Deitu 943 76 08 18 telefonora.

4. LANA

ESKAITZAK

Etzeko lanak edo lanerak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Araiz)

Mutila lanerako gertu. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etzeko lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauze. 610 01 06 19

Esquetan eta oinetan masaiak ematen ditut. Hatzazkalak ere garbitzen ditut. 600 600 531.

Emakumeak etzeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientzidunak dendan lan egingo luke. 943 76 07 69.


Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94

Neska edozein lanetarako gertu, arratsaldez. 943 76 00 24.

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Umeak zaindu arratsaldez.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA


MUJIK UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

POL-POL
Taberna

☎ 943 76 07 78



dez. 943 76 34 48 (Mayra).

ESKAERAK

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 31 86.

30 urtetik gorako emakumea behar da pertsona edadetua zaintzeko. 629 26 39 45.

Neska behar da etxeko lanetarako. 943 76 31 11.

Neska gaztea behar da haurrak zaintzeko arratsaldez. 943 76 70 33.

Bi haur zaindu eta etxeko lanetarako neska behar. 943 76 15 61 (gauez).

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles fiologian lizentziatuak klaseak eman. 943 76 30 28 (Ana).

Majisteritzan diplomatuak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

Solfeko eta piano klaseak. 943 76 72 69.

OHO. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Lancia Delta. 943 76 51 01.

Peugeot 205. Prezio ona 943 76 36 74.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Renault 19-16 V. 1, 3 milioi. 943 79 10 08.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Kawasaki GPZ 400 motoa. 943 73 18 72 / 73 12 82.

Yamaha Jog Scooter motorra (90 cc.) salgai 943 73 18 72/73 12 82.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

Chrysler kotxea salgai. 943 76 42 76.

Peugeot 405 Mi 16. 943 76 03 01.

7. ANIMALIAK

SALDU

Artzain aleman txakurkumeak. Pedigreedu-

nak. 696 05 73 46.

Hiru txakur ar eta emebat ematea. Borondatea jasotzen da. 943 76 49 09.

Spaniel breton txakurkumeak. 943 79 19 63.

8. DENETARIK

SALDU

Karabina salgai egoera onean. 943 76 38 87.

Fotokopidora, faxa eta mahaia. 607 34 46 58.

Errepideko Zeus bizikleta salgai. 943 76 49 88.

Ume-kotxe estalkiduna. 943 76 06 89.

Karro denda. Ondo ekipatuta. 943 76 42 86.

Marrazketa mahaia eta aulkia. 943 76 41 96.

Canyon piragua salgai. 943 76 62 63.

Merida mendi bizikleta, berri-berria. Aluminiozkoa. 943 76 05 88.

Kitarra elektrikoa. 943 76 44 27 (Unai).

Idazmakina elektronikoa. 943 76 42 76.

Sony bideokamera prezio onean. 639 936 841

EROSI

Bigarren eskuko garbigailua erosiko nuke. 607 47 14 61.

GALDU

Erlojua galdu dut, 1967-VI-17 eta 1992-VI-17 fetxeekin. 943 76 27 17.

Urrezko medaila eta kartaia (V.A. inzialak) galdu ditut Plaza inguruan. Sarituko da. 943 76 19 40.

Urrezko pultsera galdu dut. N.L. 94-IV-29 inskripzioarekin. 943 76 03 72.

9. HARREMANAK

KONTAKTUAK

41 urteko gizon batek emakumea ezagutu nahi luke. 943 76 40 03.

BESTELAKOAK

Aita bazara edo izateko bazara eta haurra gehien moduan ez baduzu hezi nahi, zure laguna izan nahi dut. 943 76 65 12 (Emilen).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

TELEMARKETINGEKO OPERADOREA
Ibai eskuinaldea. 21846/1

FRESATZAILEA
Donostialdea. 23789/4

PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 23810/2

INFORMATIKAN LIZENTZIATUA
Ibai eskuinaldea. 21941/3

DELPHI PROGRAMATZAILEA
Beasain. 23932/3

INFORMATIKAN LIZENTZIATUA
Ibai eskuinaldea. 23421/4

ERRETROESKABADORA GIDARIA
Ibai ezkeraldea. 23993/2

GALDARAGILEA
Goierri. 23550/1

FRESATZAILEAK, 2
Azpeitia. 24064/1

LH-II METALA
Deba Behea. 23578/5

ANTZERKI MONITOREA
Bilbo. 21763/1

KOMERTZIALA
Ibai ezkeraldea. 23696/2

TORNULARIA
Deba Garaia. 23312/1

KOMERTZIALA
Ibai ezkeraldea. 23701/2

KAMIOI GIDARIA
Deba Garaia. 23358/1

MULTIMEDIA PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 24004/2

ASEGURU SALTZAILEA
Arabar lautada. 23644/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Esperientziadun ZERBITZARIA
behar da Antzuolako jatetxe baterako

943 76 60 25

Dietetika eta Nutrizioa

Lorea Aramburu Doktorea

- Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan diplomatua.
- Bordeleko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan diplomatua.

Ordutegia: Goizez eta arratsaldez
INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA
Erdiko kale 22, 1. • ARRASATE • Tf. 943 79 72 16

Tratatzen diren osasun arazoak

- Kolesterolia
- Loditasuna
- Diabetesa
- Azido urikoa
- Arteria hipertentsioa
- eta abar.

Esperientziadun ZERBITZARIA

behar da jatetxerako

619 885 333

ZERBITZARIA
behar da jatetxerako

943 76 20 29

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

Esperientziadun ZERBITZARIA

behar da

943 76 59 28

Datorren zapatuan, hilak 9, emango zaio hasiera aurtengo Udazken Kulturaleko egitarauari, Madrileko Yllana antzerki taldeak antzeztuko duen 666 lanarekin. Urritik urte amaiera bitartean musika emanaldiak, erakusketak, diapositibak, hitzaldiak edota antzerki saioak izango dira. Egitarau zabala, beraz, aurtengo Udazken Kulturalean.

Egitarauko ekitaldi batzuk zehaztuta daude dagoeneko, baina beste batzuk ez. Edozein modutan ere, zehaztuta daudenak aipatuko ditugu. Musika emanaldiei dagokienez, organo kontzertuak, emanaldi sinfoniko-koralak, rock jaialdiak edota blues gauak izango ditugu. Hiru organo kontzertu izango dira, hirurak San Pedro parrokian: Bartoletti italiarrarena urriaren 23an, Loreto Imazena azaroaren 6an eta Pedro Guallar bergarrarena azaroaren 27an. Horretaz gain, beste hainbat emanaldi sinfoniko koral izango dira: urriaren 16an, Ur-Klang soka laukotea; urriaren 17an, Los Incansables txaranga; urriaren 30ean, Udal Musika Banda eta Noruegako Bergen ahots taldea; azaroaren 13an, Madrileko Unibertsitate Autonomoko Orkestra; azaroaren 20an, Bergarako Orkestra Sinfonikoko Gánbara taldea; azaroaren 21ean, Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua; abenduaren 3an, Musika Eskola; abenduaren 4an, Coro de la Hermandad de nuestra señora del rocío Espartinas; abenduaren 18an, Gabonetako kontzertua eta abenduaren 26an, Eduardo Baranzano eta Airean taldearen kitarra kontzertua.

Esan dezagun, bestalde, Gipuzkoako bertsolari txapelketako final laurdenetako saioa izango dela azaroaren 20an Bergaran. Musikarekin jarraituz, hainbat rock emanaldi izango dira Jam aretoan eta, gainera, Blues gauak urriaren 28an eta 31n eta azaroaren 4an.

Udazken Kulturalea, urritik urte amaiera arte

Yllana taldearen 666 antzezlanaren eskainiko da datorren zapatuan



Hiru antzerki emanaldi iragarri dira Udazken Kulturalean. Taupadaren "Mari sorgin"ek emango dio amaiera abenduaren 31n.

GURIA
Taberna
 Bidekurutzeta 5
 ☎ 943 76 20 34



OZAETA JAUREGIA
 Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



LASA
Jatetxea

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
 ☎ 943 76 13 35

Antzerkiari dagokionez, datorren zapatuan Yllana taldeak eskainiko duen 666 antzezlanaz gain, Tanttakak *Dakota* antzeztuko du azaroaren 5ean, eta abenduaren 31n Taupada taldearen *Mari Sorgin* emanaldia izango da.

Nabarmentzekoa da aurten Andaluzia eguna ospatuko dela urriaren 30ean Bergaran. Besteak beste, Sueño de Andalucía dantza taldeak eta Al-Aldalus abesbatzak hartuko dute parte. Bestalde, erakusketak izango dira Kultur Etxean; azaroko lehen astean, Hiesari buruzko ekitaldiak izango dira eta, horretaz gain, hainbat hitzaldi eta diapositiba emanaldi antolatuko dira Udazken Kulturalean Gabonak bitartean.

666: ESPETXEA INFERNU BIHURTZEN DENEAN

Udazken Kulturari hasiera emateko goi mailako antzerki emanaldia iragarri da datorren zapaturako. Primerako estreinaldia, beraz, Yllana antzerki taldearen 666 lan arrakastatsua.

Yllana taldea 1991. urtean sortu zen Madrilén. Zapatuan Bergaran aurkeztuko dena, taldearen hirugarren lana da. Yllana taldearen lanetan, garrantzi handiagoa du arlo bisualak hitzak baino. Zinea, telebista, komika eta mimoa dira Yllanaren eskaintza bisualaren iturri nagusiak eta umore beltza da antzezlaren ardatz nagusia.



Datorren zapatuan antzeztuko den 666 lana.

Espetxean, heriotz korredorean, dauden lau lagunen gora-beherak kontatzen dira. Bizi duten egoera hain jasangaitza izanik, espetxea infernu bihurtu da. 666 antzezlana mutua da eta arrakasta handiz eskaini da kontinente guztietan. Datorren zapatuan 22:30etan aurkeztuko da Novedadesen. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira; gazte eta langabetuentzat, 750ean.

Martitzenean aurkeztuko da jubilatuen III. Kultur Hamabostaldia

San Joxepe jubilatuen elkarteak III. Kultur Hamabostaldia antolatuko du urriaren 14tik 30era bitartean. Mahainguruak, hitzaldiak, irteerak eta beste zenbait ekitaldi antolatuko dituzte "Gatazka egoeretan pakea eskaini" lelopean. Datorren martitzenean aurkez-

tuko dituzte hamabostaldiko egitaraua eta berau iragartzeko erabiliko den kartela Kultur Etxean 18:00etan.

Kartela aukeratzeko lehiaketan Dani Laskurainen lana saritu dute. Lehiaketara 6 lan aurkeztu dira eta Laskurainenek, 100.000 pezeta jasoko ditu.

erreseinak

Xabier Amuriza

Enaz banaz
Autobiografia

enaz banaz

Lan autobiografiko batekin itzuli da Xabier Amuriza bertsolari eta idazlea. Bizitzan zehar gertatutako hainbat pasadizo kontatzen dizkigu liburuan: hainbat plazatan bertsotan gertatutakoak, kartzelan egon zeneko denborari buruzkoak e.a. Esaterako, liburuaren atzealdean jasotako hau: Behin Abadiñon saio berezia gertatu zen, Bilboko gotzaina be, gizon txikia eta berdea, gure Gurdipe inefablea, etortekoa baitzen. Eta ni bertsotara deitua!... Bizkaiera erabili du autoreak narrazioarako.

- Bertsolari. 393 orr. 2.200 PTA



Petti
Amets bat
Folk-blues

Juan Luis Perez *Petti* kitarrajole beratarak urte dezente daramatza bidean eta hemen aurkeztzen dizueguna bere bakarkako estraineko lana bada ere, hainbat taldetan aritutakoa da: Noise Hole, Labanak, Xabier Montoia, Anari, Morau.... Bere ahots sakon eta urratua, eta kitarra akustikoa dira "Amets bat" honen oinarria, baina biolontxeloak, klarineteak eta teklatuak giro berezia ematen diote hainbat kanturi. Nick Drake, Mark Lanegan, Calexico edota Tom Waits-en eragina nabari da, bere sinpletasunagatik zirrara sortarazten duen abesti bilduma honekin.

- Gaztelupeko Hotsak. 2.500 PTA

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Erdipurdikoa. 2. Apala. 3. Ezten. Denek. 4. Errepikatuz, fruitu tropikalak. Ez geza. Lehenengoa eta azkena. 5. Bokala. Bibliako pertsonaia. Hosto. 6. Handia. 1998an. 7. Uretako bizidunak. Bokala. 8. Röntgen. Bokala. Gipuzkoan, zain. Iridioa. 9. Jainko egiptoarra. Sortalde. 10. Aditua. Hortz-lepoetako ehunak.


Goitik behera

1. Higuigarri. 2. Droga-mota. Ez-eme. Nor, pluralean. 3. Gehiegi. Italiako dirua. Bokala. 4. Arrain-mota. Einsteinioa. 5. Sodioa. Hitz baten amaieran paratzen hizkien multzoa. 6. Gipuzkoan, zator. Neba. 7. Heriotza. Herri giputza. 8. Gora egin. Partitiboaren ezaugarria. Gauero egiten dugu. 9. Kati-lua. Zezen zikiratu. 10. 4. eta 1. bokalak. animalia ornogabea.

Soluzioa

10. Oa. Ziztea
 7. Herio. Aia. 8. Igo. Rik. Lo.
 9. Kikara. Idi.
 5. Na. Atziki. 6. Aroz. Anala.
 3. Lar. Lira. A. 4. Alligota. Es.
 1. Nazagarri. 2. Opiu. Ar. Ak.
 Goitik behera
 9. Ra. Ekialde. 10. Ikasia. Oia.
 7. Arrainak. A. 8. R. A. Zai. Ir.
 3. Lot. Orit. 6. Galiza. Iaz.
 3. Ziri. Orok. 4. Ko. Gazl. Az.
 1. Nalnahiko. 2. Apalategia.
 Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberebizbar

Zer dago idatzita Olaso dorrearen teilategalean?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Datorren urtean eraikitzen hasiko diren Ekialdeko saihesbidearen aurrekontua?
 A- 2.200 milioi pezeta
 B- 2.400 milioi pezeta
 C- 2.600 milioi pezeta
2. Zenbat diru batu zen joan zen zapatuan Raul Luqueren aldeko aerobitonean?
 A- 400.000 pezeta inguru
 B- 500.000 pezeta inguru
 C- 800.000 pezeta inguru
3. Zein da Yllana taldeak datorren zapatuan antzetzuko duen lanaren izena?
 A- 666
 B- 999
 C- 696



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARA** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Amaia Zabaleta**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Amaiari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
 Bonofotoa: **Ameztzarra**
 Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Berberana
 ardo gaztea 3/4 litro
229 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Administraritzak ikasketak egin zittuan Bergaran eta, Mila Berrio-Otxoa eta Marixabel Oregirekin batera, La puerta al ingles akademixako arduradunetako bat da. 1993tik bertan dabil lanean. Lirain izeneko alabia dauka.

Elena Eguren

Zuk zeuk zenbat hizkuntza dakizu?
Erdaria, euskera eta inglesa defenditzeko beste hitzegiten dot.

Eta zein ikistia gustauko jatzun?

Alemana, baiña oso nekeza ei da.

Atzerriko hizkuntza bat zenbat urtekin ikistia komeni?

Guk 5 urtekin aurrerako umiak dauzkagu...

Txikitari ikasle ona ziñan?

Bai.

Ikasgairik gustokuena, zein?

Geografia beti gustatu jat, inglesian be ez nitzan txarra...

Lanik atsegiñena?

Ikasliekin hartu-emona, biharbada.

Lanbidez aldatzekotan, zer?

Ez dot sekula planteau. Konforme nago.

Afiziño bat?

Irakurtzia, pasiatzia...

Irakurritako azken liburua?

El sueño de Joanna (Barbara Wood).

Kiroliek egiten dozu?

Noizian behin mendira...

Inguruko mendi bat?

Aizkorri. Udalaitz be gustatzen jat, baina ixotzeko nekeza da.

Janari eta edari bat?

Haragizalia naizenez, txuleta on bat.

Eta erateko, ardaia.

Sukaldari ona zara?

Ez, baiña ama sukaldari ona da zorionez.

Telebistako programa bat?

Goenkale ikusten dogu.

Egunkarixan irakurtzen dozun lehen gauzia?

Eskelak.

Zelako musikià gustatzen jatzu?

Danetik, baina euskal taldiak batez be.

Kantu bat?

Lau teilatu, Itoizena.

Esan bai, baiña oindio egin ez dozun gauza bat?

Londresera jua.

Egindako azken oparixa?

Konpakto bat, alabiari.

Eta jasotako azkena?

Nere urtebetetzian izango zan: pijama bat.

Kolore bat?

Gorrixa.

Usain bat?

Itsaso usaiña.

Udazkena atsegin?

Tristia pentsatzen jat.

Manixa bat?

Ordenia, zapata garbixekin irtetzia etxetik...

Loterixan jokatzen dozu?

Azkenaldixan kinielia egiten dot.

Irla desertura zer eruango ziñuke?

Liburu bat, lagun bat eta bueltarako txalupa on bat.

Eta zer ez ziñuke eruango?

Telebisiñua.



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irla z/g ☎ 943 76 07 92



Estella ortopedia



Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

Plantilak

Oinetakoak

- Oin delikatuak
- Diabetikoak
- Deformidadeak
- Umeendako zuzentzailea



RPS 421/97

Matxiategi 5. Telefonoa: 943 76 19 63

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



Eskola Nazionalako ikasleak, 1974

Herriko ikasleek ikasturteari orain dela egun gutxi ekin badiote ere, goiko argazkikoei urrun geratzen zaizkie eskola egunak dagoeneko. Bertan agertzen diren gehientsuenak 1966. urtean jaiotakoak dira eta argazkia 1974 urtearen inguruan aterata dago. Garai batean, Eskola Nazionala gaur egun Matxiategiko Aranzadi Ikastola dagoen lekuan zegoen eta goiko erretratu bertako gimnasioan aterata dago. Ikasturtero, argazkia ateratzen zioten eskolako gela bakoitza osatzen zuten ikasleei. Hara hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Goiko ilaran: Joxe Balanzategi, Josu Alberdi, Juan Manuel Lasa, Daniel Laskurain, Imanol Cerdeira, Martin Odriozola, Gorka Arakistain, Miguel Gonzalez, Patxi Soto, Ritxar Carmona, Migel Albusua, Alex Irureta, Gotzon Mendibil eta Jesus Martin irakaslea.

Hirugarren ilaran: Ricardo Diaz, Juan Luis Molina, Pablo Etxaniz, Abel Uribealago, Roman Moñux, Felix Osuna, Diego Osuna, Aitor Mujika, Jose Antonio Padilla, Victor Munarriz, Ricardo Iturbe, Juan Flores, Felix Salamanca eta Antonio Ot.

Bigarren ilaran: Jose Mari Garcia, Fran Salgado, Juan Ramon Etxeberria, Jose Antonio Gomez, Mikel Uribealago, Jose Mari Martinez, Joseba Ugarte, Inazio Irigoien, Tomas Sanchez, Jon Aranzabal, Daniel Escobar, Juan Carlos Herreros, Fernando Muruamendiaraz eta Carlos Fernandez.

Aurrean: Juan Manuel Perez, Javi Cid, Jose Ignacio Garcia, Juan Becerra, Jose Antonio Gonzalez, Julen Larrañaga, Javier Larrion, Juan Carlos Murillo, Andoni Juaristi eta Manolo Pineda.

Argazkia: Miguel Gonzalez.

DEBAGUNEK –Deba Garaiko Euskara Elkartearen elkargoa– urtero argitaratzen duen egutegirako argazkiak behar ditugu Antzinako lanbideen (errementaritza, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...) argazki zahar edo berriak baldin badauzkazu, BERRIGARA edo JARDUNERA ekartzea eskertuko genizuke. Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.

Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97. Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

EXCEL THERAPY

RENACER

Aurpegirako emulsioa



Klase guztietako azaletarako egokia, eguneroko aplikaziorako aproposa. Aurpegiko azalari leuntasun berezia ematen dio.

Biosome aurpegirako krema



Testura leuneko krema. Gau osoan lan egiten duen tratamendu berregituratzailea.

Continuity aurpegirako maskara



Erraz aplikatzeko moduko tratamendua, zuk zeuk etxean emateko modukoa, zure azalaren osasuna, gaztetasuna eta edertasuna indartzeko balioko duena.

Larruazaleko ehuna tinkatzen du eta azalari gazte itxura eta frsekotasun sentsazio berezia ematen dio.



Begien ingururako jela

Begien inguruko azalari tinkotasun eta elastikotasun naturala ematen dio. Eraginkortasunez eta behin betiko jokatzen du zimurren kontra.



Ezpainen ingururako krema

Oso ingurune sentiberarako berariazko zainketa. Ezpainak babesten ditu eta eraginkortasunez jokatzen du inguru horretako zimur txikien kontra, eta mantxarrik agertzea ebitazen du.

Begien ingururako maskara Jel Bio Aktiboa



Mikroporozko filmaz eta Gel Bio Aktiboz osatua. Zimurkontrako, tinkatzaile eta deskongestionatzaile gisa jokatzen du eta eztigarri eta freskagarri da azalerako, begiradari espresio lasaia ematen diola.

Berehala azalak leuntasun nabarmena hartzen du eta modu nabarian desagertu egiten dira begi inguruko zimur txikiak.



Giartzu




Dermoestetika zentroa

Boni Laskurain 3
Telefona: 943 76 35 71

ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK



BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ**

FAGOR 

ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51

ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55

ARETXABALETA